


El mundo alemán de Einstein

Fritz Stern

Paidós, Bartzelona, 2003, 320 orr.



Raymond Aron filosofoaren arabera, XX. mendea Alemaniaren mendea izan zitekeen Lehen Mundu Gerrak lurraldearen norabidea okertu izan ez balu. Ikuspegi horrekin bat dator Fritz Stern, eta halaxe azaltzen du *El mundo alemán de Einstein* liburuan. Zergatik gertatu zen Holokaustoa? Zerk eraman zituen alemaniarrak halako jarrera totalitario eta xenofoboa hartzera? Halako galderak zituen buruan Stern-ek aipatu lana idazteari ekin zionean. Estatu Batuetan errefuxiatu mediku judu baten semea izanik Stern, gurasoen eta hein handi batean berea ere baden iragana hobeto ulertzeko beharra zuen egileak.

Orain arte gai horren inguruan argitaratu diren liburuen ereduari jarraituz, Stern gertakari esanguratsuak aztertzeri muga zitekeen. Alabaina, horren inguruan dena esanda dagoela iritzita, egileak ikuspuntu arras berritzailea proposatzen du: bi mundu gerren arteko epean nabarmendu ziren zientzilaria juduen biografietan sakontzen du, gertakizunen aurrean komunitate zientifikoak agertu zuen jarrerak asko esaten baitu orduko egoeraz. Modu horretan, kimioterapia asmatu zuen Paul Ehrlich, Lehen Mundu Gerran gas toxikoarekin esperimentatu zuen Fritz Haber, zein erlatibitatearen teoriari esker ospea lortu zuen Einstein, protagonista bihurtzen dira bi Mundu Gerren artean jazotakoa aztertzea xede duen obra honetan.

Lehen Mundu Gerraren aurreko urteetan Alemaniako komunitate zientifikoa begirunez tratatzen zuten gainerako herrialdeek. Kaiserrak aurrerapen zientifikoa mesfidantzaz ikusten bazuen ere (arrazoi erlijiosoak zituen horrela pentsatzeko), jakin bazekien arlo horretan emandako urratsek lurraldea indartzen lagunduko zutela. Beraz, ez zion zientziari oztoporik jarri, baina ezta laguntza handirik eman ere. Hain zuzen, urte haietan esku

pribatuetatik zetorren dirulaguntzei esker lortzen zuten zientzialariek euren proiektuak martxan jartzea. Aurrerapen haietan, zientzialari juduek rol erabakiorra bete zuten. Nolabait, erlijio kontuek eragindako ezinikusia euren lorpenekin estali nahi zuten. Onartuak izatearekin amesten zuten, eta aberriarentzat lan eginez helburua aise beteko zutela uste zuten. Zeren zientzialari haiek zinez alemaniarrek sentitzen ziren, nahiz eta urte batzuk geroago alderdi naziak juduei traizioa eta aberriaren kontra azpikeriatan ibiltzea leporatu zien.

Baina alemaniar "puruen" gehiegikerien aurrean judu guztiek ez zuten jarrera irmo bera agertu. Hainbat katolizismora igaro ziren, Fritz Haber esate baterako, sinesmen aldaketak lanbideari begira erraztasun handiagoak eskainiko zizkielakoan. Alabaina, halako erabakiek arazoa konpondu baino gehiago zaildu egiten zuten. Haberren antagonistatzat har daitekeen Einsteinek konbertsioa aleman epelkerian erortzea kontsideratzen zuen. Eta, hain zuzen, epelkeria zen Alemaniako gizartearen gaitzik handiena.

1914an, Lehen Mundu Gerraren atarian, abertzaletasun sentimenduak goia jo zuen. Komunitate zientifikoko 93 jakintsuk (haien artean zientzialari judu aski ospetsuak zeuden), Alemaniaren aldeko manifestua izenpetu zuten. Bertan adierazi zuten, ez zuten Alemania gerraren erantzule egiten. Era berean, ukatu egin zuten Alemaniako tropak sarraskiak eragiten ari zirenik. Manifestu hura suminduraz jaso zuten nazioartean. Ordura arte Alemaniako komunitate zientifikoari erakutsitako errespetu eta sinpatia, gaitzespen bihurtu zen atzerrian. Ezin zuten ulertu nolatan alemaniar zientzialariak begiak itxi zitzaizketen jazotzen ari zenaren aurrean.

Gerraren porrotaren eta horrek ekarri zituen zigorren eraginez, lurraldea erabat erradikalizatu zen. Guda, barruko etsaien erruz (bakearen aldekoak, sozialistak, juduak) galdu zela zabaldu zuten eskuin muturreko alderdiek, eta, ildo horretan, anti-semitismoak inoiz ez bezalako indarra hartu zuen. Walther Rathenau enpresariaren hilketak agerian utzi zuen egoeraren larritasuna. Hitler boterera iritsitakoan, juduen kontrako kanpainak gora egin zuten. 1933an, Administrazio Publiko Profesionala egokitzeko legearen arabera, pertsona ez-arioak eta sasi-arioak euren lanpostuetatik egozteko agindu zuen diktadoreak. Goi-mailako zientzialarien artean, erlijio ezberdintasunen gainetik, begirunezko harremana zegoen. Bazekiten neurri hura bidegabea zela, baina inork ez zuen protestarik egin. Haietako batek adierazi zuten, neurriaren kontra 30 irakasle altxatzen baziren hurrengo egunean 150 irakasle Hitlerren alde agertuko ziren aurrekoen postuak eskuratzearren. Horrelakoa zen egoera: bakoitzak berea zaindu behar zuen. Dena den, zientzialari judu gehienek kaleratuak izan baino lehenago dimisioa aurkeztu zuten. Keinu horrekin beren duintasuna mantendu nahi zuten. Eromen arrazista hartan, naziek Einsteinen erlatibitatearen teoria ukatzera iritsi ziren. Einsteinek, Alemania hartzen ari zen itxurarekin nazkaturik, erbestera jo zuen. Gertatzen ari zenaren errudun Alemaniako gizartearen serbilismoa egin zuen Einsteinek, azken batean alemanen epelkeriak Hitler bezalako pertsona doilorrei boterearen atak ireki zizkien.

Testuinguru hartan, Sionismoak itzal handia hartu zuen, eta juduen estatua sortzeko eskariak inoiz baino ozenago entzuten hasi ziren. Edonora

zihoazela juduek errepresioarekin eta arrazismoarekin topo egiten bazuten, inork ez baldin bazituen onartzen, orduan euren lurralde propioa eratzea besterik ez zitzairen geratzen. Eskakizun haietan Chaim Weizmann enpresari aberatsak presio handia egin zuen. Hasiera batean, Britainia Handiak ez zuen argi ikusten sionisten planteamendua, Palestina inguruan ezarri nahi baitzuten euren aberri berria. Beraz, erabakia atzeratzen saiatu zen. Baina Bigarren Mundu Gerra amaitu eta naziek juduekin egindako sarraskia agerian geratu zenean, Israelgo estatua izango zena definitzeko aitzakiarik ez zegoela adierazi zuten sionistek. Eta, hain zuzen, gertakari hark bultzatu zuen Nazio Batuen Erakundea 1948an Palestina bitan banatzera, eskualde bat arabiarren esku utziz eta bestea juduei emanaz.

Einsteinen Alemaniatik gaur egungo Israelera

Erlijioa komunean eduki arren, judu guztiek ez zuten berdin jokatu, eta halaxe frogatzen du Stern-ek Einstein eta Haber adibidetzat harturik. Lehenengoak sozialistatzat zuen bere burua, giza legearen aldekotzat. Aurrerapen zientifikoa gizakiaren alde erabili behar zela uste zuen, eta bizi izan zen artean gertakizunen aurrean begirada gardena mantentzen saiatu zen: lotsa barik kritikatu zuen alemaniarren jarrera Lehen zein Bigarren Mundu Gerran, 1914ko gatazkak bere lankideen babesa jaso zuela jakin arren. Era berean, ez zuen sionismoa gaizki ikusten, baina ez zen fanatiko itsu bat ere. Haber, berriz, pertsona iluna izan zen. Aberriari zion errespetuagatik bere erlijioa ukatzera eta gas toxikoarekin esperimendatzera iritsi zen (Lehen Mundu Gerran hildako ugari eragin zituen gasak, eta agintariek horregatik zoriondu zuten Haber). Alabaina, Stern-en ustez bada bi pertsonaiak lotzen dituen zerbait: euren modura, Einstein eta Haber Alemaniari laguntzen ahalegindu ziren. Einsteinek begiak estaltzen zizkion benda kendu nahi zion Alemaniari. Potentzia handia izan zitekeen, baina, horretarako, bere seme-alabak errespetatu behar zituen, eta hain berezkoa zuen kultura militarra alde batera utzi. Haber-ek, ordea, akatsak edukita ere, gurasoen maitasuna merezi duen semea kontsideratzen zuen Alemania, eta jarrera permisiboegia erakutsi zuen. Hau da, aberriak zer eskatu, horixe eskaintzen zion, ondo ala gaizki zegoen aztertu barik.

Ikuspegi antagoniko horretaz baliatzen da Stern edozein jarrera hartuta ere juduen asmo onak azpimarratzeko, eta, zentzu horretan, Alemaniak eman zien ordaina salatzeko. Alabaina, antagonismoak azaltzeari aberasgarria irizten badiogu ere, Israelgo estatua sortzeko prozesuari begira egileak ikuspegi onberegia agertzen duela iruditzen zaigu. Hau da, hainbeste sufrimendu pairatu ostean, Weizmann-ek adierazi bezala juduek euren estatua sortzeko eskubidea zutela azaltzen du Stern-ek. Liburuan agertzen diren datuak ikusita, pentsa daiteke Nazio Batuen Erakundeak sionismoari lehenago erantzun izan balio Holokaustoa ez zela zertan gertatu behar. Alabaina, Bigarren Mundu Gerra amaitu arte itxaron zuten Palestina bitan banatzeko, eta lurralde hain desiratua sortzeko. Stern-ek aipatu egiten du lurralde arabiarrek ez zutela ondo hartu banaketaren kontua, lehen kolonoak iritsi zirenean erasoak gertatu zirela, baina ez du gaian gehiegi sakontzen. Aitzitik, harro sentitzen da juduek unibertitate propioa jasotzea lortu zutelako, zeinetan irakasgaiak hebraieraz ematen hasiko ziren.

Egun batetik bestera lurralde bat banatzea zeinen traumatikoa izan behar duen kontuan harturik (hainbat mendez bertan bizi izan diren herritarrei begira, batik bat), azalekoegia iruditzen zaigu Stern-ek egiten duen gogoeta. Juduek euren nahia betetzea lortu zuten, baina arabiarren iritzia ez zuen inork eskatu. Azken batean, haiekin negoziatzen jarri izan balira, segur aski ez zuten Israel eraterik lortuko. Datu horiek arras baliagarriak dira gaur egun Palestina eta Israel artean gertatzen ari dena ulertzeko. Zenbait komunikabidek igortzen duten informazioa ikusita, badirudi palestinarrak direla kolonoak, eta, zentzu horretan, israeldarrak eroapen handia erakusten ari dira aurrekoen gehiegikerien aurrean. Uste hori aski zabaldua dago geure inguruan, ezezagutza handia baitago Israelgo estatuaren sorreraren inguruan. Badirudi Holokaustoak halako inmunitatea eman ziela juduei, eta orduz geroztik ezin da zalantzan jarri beren jokabidea. Ez dute kritikarik ametitzen, haiek baino jazarpen handiagorik ez duelako inork pairatu. Kritiken aurrean israeldarrek hartzen duten jarrera itxiaren adibide da Jose Saramagori gertaturikoa. Duela hilabete batzuk zenbait idazlek eta intelektualek Israelera egin zuten bisitan, Portugalgo Nobel saridunak gogor salatu zuen Ariel Sharonen jarrera. Horrekin ez zuen esan nahi Yasser Arafaten aginte moduarekin ados zegoenik, baina Israelek Palestinako herriarekin hartzen ari zen jarrera bere garaian naziek juduekin erakutsi zutenarekin parekatu zuen: batzuek zein besteek garbiketa etnikoa bultzatzen zuten. Adierazpen horiek biziki mindu zituen Israelgo ordezkariak, eta bisita haren ostean Saramago hain pertsona jakintsua ez zaiela iruditzen esan zuten. Une honetan, etsai bat gehiago kontsideratzen dute.

Arazoa zera da: Saramagoren adierazpenen modukoan aurrean Israelgo gazteria asalatu egiten da, sinetsi egiten ditu bertsio ofizialak, gurasoek Holokaustoa azaldu bai baina herrialdearen sorreraren historia ezkutatu egin dietelako. *La Vanguardia* egunkarian argitaraturiko elkarrizketa batean, gaur egun Bartzelonako Unibertsitatean irakasle den israeldar batek adierazi zuenez, lehen kolono haien ostean jaio diren belaunaldiak gezur eta ezjakintasunaren artean hazi eta hezi dituzte. Berak zinez uste zuen Israel palestinarren borondate onaren emaitza zela. Hau da, arabiarrek euren lurak kolonoen esku uztea adostu zutela, baina nola historikoki erakutsi duten pertsona aldrebes eta fedegabeak direla, eta israeldarren lorpenen inbidia dutenez, bada orain lur horiek bueltan jasotzea erreklamatzeko dutela.

Ikasketak zirela eta, israeldar horrek Ingalaterrara jo zuen. Bertan, Israelen jatorriari buruzko hainbat dokumentu aztertzeko aukera izan zuen. Benetan gertaturikoa jakin zuenean, negar egin zuen. Israelera bueltan, publikoki Palestinako herriari elkertasuna adierazi, eta gatazka konpontzeko elkarrizketa biderik egokiena zela adierazi zuen. Hortik aurrera jaso zuen presio eta mehatxuen eraginez (bere pertsona zein familiaren kontrakoak), erbestera jo zuen. Alde egin aurretik, hainbat lankidek eta lagunek bere iritziekin ados zeudela esan zioten, baina publikoki agertzeari uko egin zioten horrek ekar ziezaiekeen arazoak beldur baitziren. Une honetan, Bartzelonako unibertsitatean, Filologia fakultatearen barruan, hebraierari buruzko mintegia sortzea da irakasle errepresaliatuaren helburua.

Aipatu irakasleak *La Vanguardia*-ko kazetariari esan zionez, israeldarren isiltasunak (Einsteinek bere garaian hainbeste zuen epelkeria eta serbilismoa) iraun bitartean, gatazkak ez du konponbiderik izango. Jendeak benetan pentsatzen duena adierazteari beldur dio, eta beldur horretaz aprobetxatzen dira boterearen alde dauden apurrak, euren irizpideak inposatzeko. Zentzu horretan, eta Israelen sorrera aipatzen duen neurrian, Fritz Stern-en *El mundo alemán de Einstein* liburua isiltasun horretan adabaki bat gehiago kontsidera daiteke.

Estibalitz Ezkerra